

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

“Décroissance”: patu, estrategia, etika ala partidu?

Irailaren 19an Frantziako Beaugency herrian Association des Objecteurs de Croissance erakundea sortu zuten. Mugimendu honek biltzen duen militante kopuruari dagokionez ez da albiste nagusietan azaleratzekoa, baina bai txikiagotze edo herturak hartu duen indarraren seinale.

DANIEL COHN-BENDIT ALDERDI Berdeko eurodiputatuari elkarrizketa luze-zabala egiten ari zitzaizkion duela aste bete Frantziako telebista publikoetako batean. Une batean kazetariak Claude Allegre ministro sozialista ohia aurkeztu zion, eta honen lehen galdera izan zen: “Zu ‘decroissance’aren alde al zaude?”. Kontzeptu madarikatu baten zepoan harrapatu nahi izan balu bezala.

Cohn-Bendit ekologistak errez egin zion ihes tranpari, aski izan zuen esatea badirela mundu honetan lekuak oraindik hazkundea behar dutenak baina herrialde aberatsetan hertura edo txikiagotze kontrolatu bat beharrezkoa dela.

Justu egun horietan, irailaren 19 eta 20an, Frantziako Beaugency herrian zeuden bilduta ehunka militante Associations des Objecteurs de Croissance (AdOC) erakunde finko moduan sortzeko. Azken hauteskundeetan Europe Decroissance izenarekin aurkeztu ziren eta emaitza benetan kaxkarrak atera zituzten arren, bide horretatik segitzea erabaki dute. Dena esan behar bada, inguruko mugimendu ezkertiar eta berdeei egurra (hitzekoa, noski) ausarki emanaz.

Ekonomia mailako txikiagotzea, hertzea edo hertura –horrela proposatu omen du Joseba Azkarraga Etxagibelek, eta egokia dirudi-

2008ko maiatzeko Net Hurbil batean aurki daiteke azalduta. Baina kontua da krisiarekin asko hedatu dela beroaldi ekonomikoaren urte zoroetan ekonomi hazkundearen ontasuna auzitan jartzea kasik esnobista zirudien kontzeptua.

Eskuina trebe denez beste edozeinen ideiak bereganatzen, azkenaldian neoliberalak ere ari dira gutxiagorekin bizitzea aldarrikatzen... Soldatapeko langileez ari dira, noski, sindikatuak haserraraziz. Komunikabide handi guztietan ikusi dira diruz estuago bizitzearen apologia dagiten erreportaje eta kronikak. Konformitatean bizitzearen goraiamenak.

Baina ekologisten teorikoeak aspaldi landu duten *decroissance* hori, jatorrizko zentzua galdu gabe, parlamentuetara ere iritsi da. Eric Dupin kazetariak oroitarazi du abuztuko *Le Monde Diplomatique* kazetan, *La décroissance, une idée qui chemine sous la récession* (Hertura, krisi garaian bidea egin duen ideia). artikuluan.

Dupinek kontatu du Frantziako parlamentuko bilkura batean 2008ko urrian Yves Cochet diputatu berdeak atera zuela hitza, eskuindarren haserrea piztuz: “Hazkundea lortzen saiatzea antiekonomikoa, antisoziala eta antiekoikoa da”, esan omen

Décroissance aldizkarian Druilhe-k 2007an honela karikaturizatu zituen hazkundearekiko kritiko direnei egiten zaizkien kritikak. Pobre itxurako neskatoak “Hertzea behar duzu” diotsa txiro andanak neke artean dakarten mutil lodikote hanburgerzaleari. Honen erantzuna: “Atzerakoia! Malthuszalea! Aberaskumea! Zuk behartsuen txikiagotzea nahi duzu!”. Ekonomia mailan hantu ez baina hertzeko proposamena, dena dela, lehen urratsak ari da ematen eta eztabaida mamitsuetarako gaia izanen da aurrerantzean. Aldekoen artean, jokabide eta pentsakera ezberdinak nabarmenduz doaz. Gainerako mugimenduetan, aldiz, asko barnatu da urteotan ekonomi hazkundearekiko kritika eta *décroissance* kontzeptuaz irri egitea ez dute aski izanen kritikoei.

zuen. Ez zuen jarraitzailerik aurkitu, prefosta, baina eztabaida publikoan sartzea lortu zuen.

Hala ere, krisia lehertu denetik asko ohartu dira txikiagotze edo hertura ez dela dagoeneko aukera bat, iritsi den errealitatea baino. Krisi ekonomikoak eta ekologikoak astindu dute planeta. Yves Cochet aburuz, “ez da gehiago hazkunderik izango. Txikiagotzea da gure patua”, baina “prestatu egin behar dugu hertze hori, demokratikoa eta bidezkoa izan dadin”. Txikiagotze derrigortu hori gizarte mailan jasangarria izan dadila, alegia.

Edo indibidualkeria atzerakoia

Ez da komeni hazkundearekin fibolizatzea. Ikusi da nola dabilen mundu guztia hazkunde ekonomikoa gelditu eta kontsumoa gutxitu denetik. Hori horrela izan bada, zer litzateke ekonomia mailako txikiagotze orokorrarekin? Galdera asko sortzen dira eta kezka gehiago.

Ezkerreko mugimenduak, sindikatuak, partiduak eta beste, kontu handiz dabilta gaiarekin. Pentsatzen jarrita, garapen jasangarria –herturaren teorikoei madarikatzen dutena, ezinezkoa delakoan– oraindik aski landu gabeko kontzeptua da. Frantzian Berdeen alderdiari Garapen Jasangarriaren Alderdia deitzeko proposamena ere ba omen



Illustration de Pierre Duflot extraite de La Décroissance n°41 en Nice le 1er juillet 2007

da. Jose Bove zerrendaburu eraman duen Europe-Ecologiek lortzat ekologikoa txikiagotzearekin batera garapen jasagarria aipatzen du.

Txikiagotze ekonomikoak ez dirudi oraingoz hauteskundeetan salgarri. Aldiz, berdeek, ezkerreko alderdiek, sindikatuek eta militante askok topo egiten duten mugida altermundialistetan *décroissance* gero eta gehiago aipatzen den ideia da. Zeharkako lerro bat, gaur entzuten den bezala.

Valentin Morel-ek *Le Monde Diplomatique*ko artikulua osagarri batean (*Vers une internationale?*) erakutsi du konplexua dela herturaren aldeko mugimenduen mundu mailako kartografia egitea. Alde batetik bere baitan pentsamendu ildo

ezberdinak dauzkalako. Eta bestetik, gai hori eguneroko lanean oso modu ezberdinetan mamitzen dutelako, beste gai nagusiekin nahastuta.

Frantzian sortu berria den AdOC erakunde berrian elkartu dira azken hamarkadan Frantzian bidea egin duten taldeak. *Silence* aldizkaria 1982an sortu zuten eta 6.000 ale saltzen omen ditu. Horren buruzagiek geroago Parti Pour la *Décroissance* antolatu zuten. Beranduago, 2004an *Décroissance* hilabetekaria sortu zen. Guzti horien inguruan azken hauteskundeetan Europe *Décroissance* zerrenda aurkeztu zuten, botoen %1era ere iritsi ez zena. Irail honetan mugimendu moduan artikulatu dira.

Herturarenak kontrako irakurketak ere baimentzen ditu, noski.

Hasteko, esana dago *décroissance* marka erabiltzen dutela ezkerreko jendeak eta baita eskubikoak ere. 2006an Cyril Di Méo-k plazaratu zuen *La face cachée de la décroissance* (Txikiagotzearen aurpegi ezkutua) liburu oso kritikoa. Sasi-zientziak aztertu eta larrutu nahi dituen *Association Française pour l'Information Scientifique*-ren gunean laburbildu zuten gero haren mamia.

Alderdi Berdeko hautetsia omen den Di Méok txikiagotzearen aldeko teoriak ildo espiritualisten eta erreakzionarioen artean kokatu ditu. “Bizimodu sotilaren aldeko mugimenduok 20 urte daramate AEBetan, eta han gehiago balio izan dute garapen pertsonalerako terapien saltzaileak aberasteko ingurumenaren aldeko politika sendotzeko baino”.

Liburuari hitzaurrea ATTAC erakunde altermundialistan izen garrantzizkoa den Jean-Marie Harribey-k egin dio. Harribeyk dei egiten die militante altermundialistei: ondo dagoela gizabanakoaren mailan sustatzea autoprodukzioa, oparia, lekuko trukeak eta bestelako truke ez diruzkoak. Baina hori orokortzeak arazo larriak ekarri ditzakeela.

Osasun aseguruia, erretreta, langabeziako subsidioa, eta beste, ekonomia monetarizko daude loturik, gizarte solidaritate osoa. Zer litzateke guzti hori monetarik gabe? “Hertuzaleek -dio Harribeyk- benetako kapitalismoari baino gehiago modernitateari egiten diote eraso, noiz eta neoliberalismoaren erdian gaudelarik”. ■





ZINKUNEGI

OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira